

Izpirituak

Kristautasunaren barruan ikusten du bere burua izpiritismoak: areago, hirugarren errebelazio-alditzat aurkezten du bere burua, Moiseren eta *Jesukristoren errebelazioen jarraian. Baina kristu-Elizek gaitzetsirik daukate.

Izpiritismoa bera nazioarteko erakunde gisa agertzen da, bere kongresu eta guzti; 1920an Munduzabaleko Kristau-Liga Izpirista sortu zuten. Gaur ere oso deigarria gertatzen da izpiritismoa askorentzat; mundu osoan horren jarraitzaileak agian milioika kontatzen beharra dago, batez ere Britainia Handian, Argentinan eta Brasilen.

Ik. Gorputza/Arima; Berraragiztapena.

Paulo Agirrebaltzategi

Izpirituak

Beste adiera hainbaten artean, gorputzik gabeko zenbait izaki adierazteko erabiltzen da, sarritan pluralean. Horien ulertzeko modua ezberdina izan ohi da erlijio batetik bestera.

1. Ireluak edo iratxoak dira sarritan izpiritu horiek, itxura hutsezko gorputza dutenak.

2. Hildakoen arima erratuei edo *argiei ere izpirituak deritzate sarritan.

3. Izadi-erlijioetan, halako *jeinuak dira, gizaki, animalia edo alegiazko izakiren baten irudian agertzen direnak.

4. Naturaz-gaindiko izaki pertsonalak. Historian zehar erlijio handietan eta monoteistetan ere bada horrelako izpirituekiko sinesterik. Naturaz-gaindiko izakiak dira horiek, jainkoak baino beheragokoak eta ahalmen mugatukoak.

Izpiritu gaiztoak edo *demonioak dira batzutan, gizakien etsaiak; bestetan, berri, onak eta gizon-emakumeen lagunak.

Bibliako munduikuskeran oparoa da izpiritu pertsonalen presentzia eta eragina munduan eta Jainkoaren inguruan: onena edo aingeruena eta gaiztoena edo demonioena.

Ik. Aingeruak; Deabrua.

Izpiritu absolutua

Hegelen kontzeptua: Historiaren dimentsio handietan (artean, filosofian eta bereziki erlijioan) "gorputzen" den Izpiritu unibertsala da.

Ik. Absolutua, zer.

Izpiritu librearen haurrideak

XIII. mendean Europa mendebaldean sorturiko kristau-sekta, Jainkoa izpiritu librea-

rekin serbitzatu behar dela irakasten zuena. Elizaren gehiegizko erakundetzapenaren kontrako jarrera hartu zuten. Sakramentu-errituen balioa gutxietsi egiten zuten, barne-izpirituaren faboretan.

Amalriko Bena-koa izan zen *sektaren maisu handienetako bat. Horregatik *amalrikotarrak izena ere ematen zieten. Eliza ofizialaren eta *Inkiszioaren jazarpena jasan zuten; batzuk heriotzerainokoa.

Izpiritu santua

Izpiritua izenak --hebraieraz ruah, grezieraz pneuma, latinez spiritus) arnasa esan nahi du jatorriz. Arnasa eta *bizia elkarrekin doaz: arnasarik gabe ez dago bizirik.

Israeldar fededunek uste dute beren arnasa, beren bizia Jainkoagandik dutela. Jainkoak eman diezaioke eta Jainkoak ken diezaioke bere arnasa, bizia, gizakiari. "Arnasa kentzen badiezu, hil egiten dira eta errauts bihurtzen. Zure arnasa igortzen duzu eta kreatuak dira, eta *lurraren irudia berritzen duzu" (Sal 104,29-30).

Jainkoak bere Herriari laguntzaren bat ematen dihonean edota gidari indartsuren bat bidaltzen dihonean, hori ere Jainkoaren arnasaren edo izpirituaren egintza gisa erakusten dute Liburu Santuek.

Hemen bildu eta ordenatu egingo ditugu Bibliako hainbat testu, izpirituaz mintzatzeko zaizkigunak.

Moiseri Jainkoaren izpirituak ematen dio argi eta indar, eta bere lagun hartu behar ditueni ere bai: "Jaunak esan zion Moiseri: Biliezazkidazu Israelgo zaharretarik hirurogeitamar; eramaniezazkidazu "bilkurako etxolara", eta han zurekin egonen dira. Zurekin solastatzera etorriko naiz, hartuko dut zugan den izpiritutik eta ezarriko dut haien gainean. Hola zurekin batean hartuko dute Herriaren kargua, eta ez zara bakarrik izanen" (Zenb 11,16-17).

Jainkoaren izpirituak ditu ere *profetak suztatuko beren karguari buruz: "Hona ene zerbitzaria, nik azkartzen dudana; ene hautetsia, ene bihotzak maite duena. Honen gainean ezarria dut ene izpiritua, Herriari ekar diezaiozuzena" (Is 42,1). "Jaunaren izpiritua ene gainean dago, Jainkoak gantzutu bait nau. Igorri nau behartsuei berri onaren ematera" (Is 61,1).

Jainkoaren izpirituak ditu gizon-emakumeak barnez argitzen. Hark dio Jainkoaren nahia ezaguterazten: "Zure nahia nork ezagutuz lezake, zeuk ez bazenio eman jakinduria eta igorri gain hortatik zure izpiritu santua?" (Jkd 9,19).

Hark ditu gizonen bihotzak berritzen: "Zuen barnean ezarriko dut ene izpiritua eta ene manuen arabera ibileraziko zaituztet" (Ez 36-27). "Ene begitartea ez diet gehiago gordeko, ene izpiritua isuriko bait dut Israelgo etxearen gainera" (Ez 39,29).

Joel profetak ere, Jaunaren eguna aipatzean, izpirtuaren isurtzea du adierazten. "Ene izpirtua isuriko dut gizon guztien gainera. Zuen sema-alabak *profeta izanen dira, zuen zaharrek ukanen dituzte ametsak eta gazteek ikuspenak. Esklabuen gainera ere, gizon ala emakume, egun horretan isuriko dut ene izpirtua" (Jl 3,1-2).

1. Izpirtua Jesusen bizitzan

Jesusek bere bizitza guztia Izpirtuaren itzalean darama. Jesusen sortzearen karietara agertzen da Izpirtuaren indarra: Zakaria Izpirtu Santuak suztaturik mintzo da; Joanes Bataiatzailea Izpirtu Santuz betea da, bere amaren sabelean delarik; Elisabet Izpirtu Santuz betea da eta Salbatzailea ezagutzen du.

Izpirtuak du Maria baitan sorrerazten Salbatzailea: "Zugana jaitsiko da Izpirtu Santua eta Jainkoaren indarrak itzal egingen du zure gainera" (Lk 1,35).

Simeon zaharra Izpirtuak argiturik joan zen tenplura eta Kristo ezagutu zuen.

Bataio-egunean, "Jesus uretatik atera zenean, zabaldu zitzaizkon zeruak eta Jainkoaren Izpirtua ikusi zuen *usoaren irudian jaisten eta bere gainera etortzen" (Mt 3, 16). Eta gero berehala "Izpirtuak bortura eraman zuen, *deabruak tenta zezan".

Bere herrian mintzatzen hasten delarik, Isaiaren liburutik irakurtzen du: "Jaunaren Izpirtua ene gainean dago, Jainkoak gantzutu bait nau...", eta gero jendeari esaten dio: "Entzun duzuen profetaren hitz hori egun betetzen da", erakustera ematen duela Izpirtua duela bere irakaspen eta egintza guztien iturri.

Izpirtua baitan du Jainkoaren hitza adierazten, eriak sendatzen, hilak pizten, deabruak haizatzen. Izpirtua baitan du *otoitz egiten.

Izpirtu hori Jesusek bere haurrideen gainera ere nahi du isuri: "Nigan sinesten duenari, ur-bizizko *ibaiak jauziko zaizko barnetik" (Jn 7,38). Eta ebanjelariak argitzen du hitz hori: "Izpirtuaz mintzo zen Jesus, haren baitan sinetsiko zutenengana jaistekoa zen Izpirtuaz; Izpirtua jaistekoa zen oraino alabainan, Jesus ez zelako oraino bere ospean sartua".

Hil aitzinean, Jesusek garbiki hitzema- ten die Izpirtu hori: "Etorriko denean

Laguntzailea, nik, Aitarengandik igorriko dudana, egia den Izpirtua, Aitarengandik heldu dena, hura izanen dut lekuko" (Jn 15,26). "Beste asko gauza ere baditut zuei esateko, baina ezin ditzakezue orain jasan. Egia den Izpirtu hura etorriko denean, egia osoa erakutsiko dizue hark" (Jn 16,12-13).

2. Izpirtua elizaren hastapenean

Jesusek, piztu ondoan, *apostoluak igorri zituen mundu zabalera: "Aitak ni igorri nauen bezala, nik ere zuek igortzen zaituztet". Hala mintzatu ondoan, arnas egin zien eta esan: "Har ezazue Izpirtu Santua" (Jn 20,21-22).

Izpirtu Santuaren jaiste hori argiago erakusten dute Apostoluen Egiteek. Jesusek manatua zien apostoluei Jerusalemenean egon zitezen, Aitak hitzeman haren zain: "Joanesek urrezko bataioa emana du, baina zuek Izpirtu Santuan bataiatuak izanen zarete, egun laburrik barne... Indar bat ukanen duzue, zuengana etorriko den Izpirtu Santuarena; orduan ene lekuko izanen zarete Jerusalemenean, Judea eta Samaria guztian, eta lur- raren azken mugetaraino" (Ap Eg 1).

Mendekoste-egunean, haize-burrumba baten artetik, suzko mihi batzuk gainera jaisten zitzaizkiela, Izpirtu Santuak bete zituen, eta mintzaira arrotzetan mintzatzen hasi ziren, Izpirtuak ematen zien bezala.

Ez da gehiago mugarik gizakien eta Herrien artean: bazter guztietako gizon-emakumeak, mintzaira guztietakoak, deituak dira Berrionaren entzutera. Orotara behar da hedatu apostoluen mintzoa.

"Izpirtuaren Ebanjelioa" deitu izan du- te Apostoluen Eginak liburua. Egia esan, Elizaren lehen urratsak kondatzen dizkigun liburu horretan, Izpirtuaren lana lerro guztietan ageri da.

Izpirtuak die ematen, ordurarte beldur- ti ziren apostoluei, denen aintzinean goraki Jesusen *piztuera aipatzeko indarra.

Izpirtuak die erakusten bidea. Hala nola, Jondoni Pauloren harat-honatak, hark ditu gidatzen: "Paulo eta Silasek Frigia eta Galazia kurritu zituzten, Izpirtu Santuak debekatua bait zien Asian Hitzaren predika- tzea (Ap Eg 16,6). "Orain, Izpirtuak lotu- rik, Jerusalemenera noa; ez dakit han zer ger- tatuko zaidan, baina hiriz hiri Izpirtu Santuak jakinerazten dit kateak eta nahiga- beak izanen ditudala" (Ap Eg 20,22-23). "Tiro-n egon ginen zazpi egun, han kausituak bait genituen dizipuluak; hauek, izpirtuak suztaturik, Paulori esaten zioten ez zedila Jerusalemenera igo" (Ap Eg 21,4).

Izpirtuak dio Paulori konprenierazten

Izpiritu santuaren bazkoa

paganoei buruz behar duela itzuli (Ap Eg 28,25-28).

Ez da bakarrik Elizako buruzagien baitan ari Izpiritu Santua, baina Eliza guztia du betetzen: "Eliza bakean bizi zen Judea, Galilea eta Samaria guztian; eraikitzen zihuan eta Jaunaren beldurrean zegoen, eta Izpiritu Santuaren indarrez betea zen" (Ap Eg 9,31).

Giristino bakoitzak ukaiten ditu Izpirituaren *dohain bereziak, Eliza guztiaren onerako. Ik. Karisma.

Izpiritu Santuaren sinestea bereziki *kristautasunarena da. Bibliako testuetatik abiatuz, teologiazko gogoetak laster ipini zuen Jainko Aitarean, Jainko Semearen eta Izpiritu Santuaren arteko harremanen arazoa. Eztabaida askoren ondoren, Hirutasunaren Hirugarren Pertsonatzat aitortu eta definitu zuen Eliz irakasleagoak Izpiritu Santua.

Islamismoak badu Izpiritua Santuaren sinesteari nolabait hurbiltzen zaiona, rul al-qudus izenez adierazten duena. Sarritan "Izpiritu Santua" itzuli baldin bada ere, hobekiago itzuliko litzateke "santutasunaren izpiritua". Dena dela, *islamismoak ez du inola ere onartzen kristautasunaren Hirutasunaren irakatsia, eta beraz, ukatu egiten du jainkozko Hirugarren Pertsona edo Izpiritu Santuaren norizana. Gabriel *goiaingeruarekin berdintzen dute gehienbat musulmanek Izpiritua.

Ik. Hirutasun txit santua; Aita Jaungoikoa; Jainkoaren Semea; Unitaristak; Mendekostea; Mendekostismoa.

Jean Hiriart-Urruty
Paulo Agirrebaltzategi

Izpiritu santuaren bazkoa

Ik. Mendekostesa.

Izpiritualak

Frantziskotarren arteko joera, XIII. eta XIV. mendeetan aski indartu zena, haiei pentsaera ofiziala bihurtzeraino: Joakin Fiorekoak mezuturiko "Izpirituaren Eliza" zuten amespuru nagusia; S. Frantziskok bizi izandakoaren eta bere jarraikariei ondare nagusitzat utzi zien pobretasunari zorrozki eutsi nahi zioten, Jesukristok eta apostoluek ere *ondasunik eduki ez omen zutelako. Auzi teologiko-praktikoa enperadorearen eta aita santuaren arteko borrokekin nahasi zen. Izpiritualak aita santuarekin, bereziki Joan XXII.arenekin, eta Eliz *hierarkiarekin tirabira gogorrean bizi izan ziren.

Ik. Frantziskanismoa; Pobretasuna/aberastasuna; Joakimitak.

Izpiritualismoa

1. Filosofiaren alorrean, *materialismoaren kontrako da, eta zer izpiritualaren gailentasuna adierazten du, zer materialari buruz buru: batzutan, diren guztiak izpirituzkora bihurtzeraino gainera.

2. Erlijiozko hizkeran, izpiritualismoak haxe adierazten du: balio mundutarrak gutxietsiz, munduaz-gaindiko eremu izpiritualean babesa eta *salbamaena bilatzen duenaren joera. Ik. Mundua.

Izpiritualista

Munduko eta giza balioak gutxiesten dituen edo beraren joera, fedearen eta salbamenaren *traszendentzian babesa bilatuz. Horrelako kristauak *ebanjelizazioa eta mundugintza edo kulturgintza gehiegi bereizten ditu, batzutan elkarren kontra jartzera.

Ik. Mundua; Mundutarra, 3.

Izpiritubidea

Sin.: Izpiritualitatea

1. Orokorri, erlijio bakoitzarekin berdintzen da, horrek *fededunaren edo jarraikariaren izpirituko bizia bideratzeko eta burutzeko sinesbidearen, ihardunbidearen, balioen eta ariketen marko eratua eskaintzen duenez.

2. Kristau-Elizan, santutasunerako landu diren arimako biziari buruzko irakatsien multzo organiko edo eskola ezberdinak dira, Ebanjelioko eta kristau-tradizioko elementu bata ala bestea nabarmentzeko joeren arabera. Honelako izpiritubideen sorburua gehienetan santu jakinen baten nortasunean aurkitu behar da; gero nolabait sistematikotu egin dira: eskolak eratuz, sarritan *erlijioso-ordenen arabera. Eskola hauek aipatu izan dira, batez ere: beneditarra, frantziskotarra, domingotarra, karmeldarra, inaziotarra eta oratorianoa; baina beste hainbat ere aipa daitezke seguruenik: erlijioso-ordena bakoitzak eta kristau-talde eratu bakoitzak berea lantzera eta nabarmentzera jo ohi du. Ik. Frantziskanismoa; Monakotza.

3. Zehazkiago, eta kristau-hizkeran erabiltzen denez, zera da: norbanakoaren bizi izpiritualak Jainkoaren graziaren eraginez hartzen duen tankera, norberaren psikologiarren, bizitzako gorabeheren eta nabarmentzen diren kristau-balioen arabera.

Izpirituen bereizkuntza

Kristau-izpiritubidean erabiltzen den esakunea; zera esan nahi du: *fededunak arimako bizian nabari dituen bulkadak, joerak